

EUSKAL HERRIKO INFORMAZIO POLITIKOA
ETB-KO 'GAUR EGUN' ALBISTEGIAN
(2008. ETA 2010. URTEAK)

Tesiaren egilea: Jose Mari Pastor Gonzalez
Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Saila: Kazetaritza Saila
Tesi-zuzendaria: Jose Inazio Basterretxea Polo
Tesiaren laburpena:

Tesiaren egileak ETBko *Gaur Egun* albistegiak euskal politikari buruz hedatutako informazioa aztertu eta konparatu du. Lanak bi garai hartu ditu abiapuntu gisa: Juan Jose Ibarretxe (EAJ) eta Patxi Lopez (PSE-EE) Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren agintaldiak. Horretarako, 2008ko eta 2010eko albistegietako edukiak aztertu dira. Lehen urtea EAJk, EAK eta Ezker Batuak osatutako hiruko gobernuaren aroari dagokio; bigarrena, aldiz, sozialistak agintean izan ziren garaia.

Ikerketaren lagina 49 albistegik osatu dute, 2008ko 24k eta 2010eko 25ek. Albistegietako edukiak sailkatzeko kategoria-sistema propioa sortu du egileak, hamabi ataletan banatuta. Ikerlan honen hipotesia hauxe izan da: Patxi Lopez lehendakariaren agintaldian ETBko *Gaur Egun* albistegiak euskal politikari buruz eta Euskal Herriaren iruditeriari buruz hedatutako informazioak helburu jakin bat zuen: Euskal Herria Espainiako eredu konstituzionalean hobeto txertatzen laguntzea, eremu informatibo horren kudeaketa baliatuz.

Bi urteetako albistegietako edukiak aztertu eta konparatu ostean ateratako datuek hipotesi hori frogatu dute. Ondorioek hauxe diote: informazio politikoak indarra galtzen du 2010eko albistegietan eta euskal politikari buruzko informazioa mugatuagoa da 2008ko berrien aldean. Beste ezaugarri bat ageri da aztertutako datuetan: Lopezen agintaldiko albistegietako edukietan Espainiako eredu autonomikoa nagusitzen da, argi eta garbi, bai informazio-unitateen aukeraketan, bai Euskal Herriaren irudikapenean.

Lehen kasuan hauxe da aipagarriena: 2010ean, portzentajearen, gehiago dira EAEko politikari buruzko informazio unitateak 2008an baino. 2010ean erdira jaisten da Nafarroako informazio politikoari buruzko kopurua. Bigarrenean are nabarmenagoa da diferentzia. 2008tik 2010era atzemandako aldaketak agerian uzten du Espainiak ezarritako eredu autonomiko ofizialaren presentzia. Sozialisten garaitik hartutako laginean, *Euskal Autonomia Erkidegoa* edo *Euskadi* terminoak gailentzen dira lurraldetasunari buruzko aipamenetan. Ibarretxeren aroko berrietan bestelakoa da emaitza, *Euskal Herria* aipatzen baita gehienetan. Berdin antzean gertatzen da euskal lurraldeak agertzen dituzten infografietan. 2010eko laginean erabat zatituta ageri da Euskal Herria: Hegoaldea baino ez da azaltzen pantailako

infografietan eta kasu horietan guztietan begi bistakoa da banaketa administratiboa: batetik, EAE ikusten da; bestetik, Nafarroa. 2008an, ordea, Euskal Herri osoa irudikatzen da. Bi joera desberdin horiek gailentzen dira eguraldiaren mapan ere.

Telebistaren ildo informatiboaren ezaugarriak ikertzeaz gain, egileak eztabaida eragin nahi izan du hedabidearen funtzio eta erantzukizunari buruz. Tesi-egilearen ustez, EITBk zerbitzu publikoa bete behar du, alderdikerian eta errazkerian erori gabe. Eginkizun horri maila nazionalean eta sozialean ekin behar dio, berehalako errentagarritasunaren helburuari erreparatu gabe. Izan ere, etekin ekonomikoak nekez lortuko ditu, eta, lortuta ere, errentagarritasuna bigarren mailako xedea izan beharko litzateke.